

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0009
Eguna: 2024-07-16
Ordua: 19:00 – 19:35
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

- 1.- 2024ko ekainaren 11ko akta onartzea.
- 2.- Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoaren 2023 ekitaldiko likidazioa
- 3.- Kontu Orokorra 2023
- 4.- 2024ko Zerga Fiskalaren aldaketa.
- 5.- Kiroldegia birgaitzeko obra gauzatze-proiektua.
- 6.- Mailegua kiroldegiko obra gauzatzeko.
- 7.- Udal langileen 2024ko soldata igoera
- 8.- Aitortutako borondatezko eszedentzia ofizioz berrikusteko espedientea
- 9.- Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPOn testu bateginaren aldaketa puntuala.
- 10.- Astigarragan Mendiandi Anibar 12 HEAn eskola-ekipamendu berria eraikitzeko Plan Berezia.
- 11.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua Astigarragan (etxeetako zerbitzua eta Marisa Garaño adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuen erabiltzaileentzat).



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

- 12.- Produkzio iturri berriztagarri eta pertsona zein bitanleriarentzako seguruen bidez, Astigarragako Udala titularra den kontsumo puntu desberdinetarako energia elektrikoa hornitzea.
- 13.- Martín Jose Ugartemendia Goikoetxeak aurkeztutako mozioa, Palestinaren aldekoa.
- 14.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak proposatu du gai-zerrendaren hurrenkera aldaketzea, eta bilera hastea 13. aztergaiarekin. Horretarako zergatia eman ondoren, bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da proposamena.

13.- Martín Jose Ugartemendia Goikoetxeak aurkeztutako mozioa, Palestinaren aldekoa.

Alkateak azaldu du mozioa bozeramailea batzordean aztertu berri dela, eta bere taldeak testua babestuko duela. Maria zinegotziak ere aurreratu du beraiak ere alde bozkatuko dutela.

Jarraian, alkateak hitza pasa dio mozioa aurkeztu duen herritarrari, baina horrek ez du hartu nahi izan, eta alkateak mozioa aurkeztu du, onartua izan dadin:

ZIOEN AZALPENA

*Israel nahita ari da bonbardatzen Gazako zerrendan eta Zisjordanian bizitegi-auzoak, eskolak, errefuxiatu-esparruak, ospitaleak eta anbulantziak. **Nazioarteko Zigor Gorteko** fiskalak ikerketak hasi ditu gerrako krimenengatik, eta giza eskubideen aldeko arakundeek eta Nazio Batuen agentziek premiazkoa dute nazioarteko komunitateak premiazko neurriak har ditzan sarraski hori geldiarazteko. 2023ko urriaren 7tik 2024ko urtarrilaren 4ra bitartean 29.438 pertsona baino gehiago hil dituzte Gazan, horien artean 9.739 haur gutxienez. **Save The Childrenek** salatu du Gazako Zerrendan haurren heriotza gehiago izan direla azken hilabeteotan 2019tik munduko gatazka guztietan baino. Erakunde horren arabera, ume bat 10 minututo hiltzen da Gazan.*

***Nazio Batuetako** adituek ohartarazi dute Palestina osoan gertatzen ari dena genozidioa dela, eta gobernuak eskatu diete ekintzara pasatzeko, esanez, "Israelen aliatuek ere erantzukizuna dutela eta orain jardun behar dutela, genozida izaerako ekintza bide zorigaitzokoa eragozteko. Alde guztiek beren betebeharrak bete behar dituzte, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen arabera".*

*Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigorrezko Konbentzioaren I. artikuluak, Espainiako Estatuak sinatzaile duenak, estatuak behartzen ditu gizateriaren aurkako mota horretako krimenak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartzera. Gogora dezagun, gainera, genozidio hori herri palestinar baten aurka egiten dela **Amnesty Internationalek** eta **Human Rights Watchek** salatzen duten bezala hamarkadak daramatzen herri palestinar baten aurka.*

Armak enbargatzea ezinbesteko urratsa da norabide horretan, eta betebeharrak ez ezik, legezkoa ere bada, Espainiako esparru juridikoan jasotzen den bezala; izan ere, debekatu egiten da armak saltzea gatazkan dauden herrialdeei edo giza eskubideen urraketa handiak dituzten herrialdeei. Hauek dira arauak:

1. 532007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpomerkatutzaren kontrolari buruzkoa.
2. Armen merkataritzari buruzko tratatua, Espainiak 2014ko martxoaren 17an berretsia.
3. 2008ko Jarrera Bateratua 944 ASPE, 2008ko abenduaren 8koa, teknologia eta ekipo militarren



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

esportazioak kontrolatzeko arau komunak zehazten dituenak.

3/3

Aurretik ere antzeko erabakiak hartu izan ditu Espainiako Gobernuak, huala nola, Libian 2011n armen salmenta etetea, PSOE agintean zela; edo istiluen aurkako materialaren salmenta Venezuelan. 2014K abuztuan Israeli armak saltzeko aldi baterako etenaldiaren aurrekaria ere badugu. Data horretan, Mariano Rajoy presidentea zela, Israelek 2.205 pertsona palestinar erahil zituen Gazan, horietatik 538 haurrak. Garai hartan arma-enbargoa justifikatuta bazegoen, gaur egun ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da arma-enbargoa bi norabidetan ulertzea, hau da, *Israeli armamentua eta segurtasun teknologia saltzea eta erostea debekatu behar zaio.*

Espainiak saltzen dituenak baino askoz arma gehiago erosten dizkio Israeli.

Israelek Palestina erabiltzen du, batez ere Gazako Zerrenda, esperimentazio-eremu gisa arma berriak eta errepresio metodoak probatzeko, eta gero esportatu egiten ditu, munduko biztanleria zibilaren aurka erabiltzeko. Produktu horiek “borrokan frogatutako” gisa iragartzen dira, eta hori balio erantsi bat bihurtu da segurtasunaren eta nazioarteko defentsaren merkatuan. Israelek sustatzen duen marka “borrokan probatua” da, eta Palestinako populazio zibilar buruz probatu diren produktuei egiten die erreferentzia. Genozidio batek kontuak eman beharko lituzke eta ez etekin ekonomikoak.

Espainiako Estatuko gobernuek ez ezik, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta tokiko administrazioek ere mundu osoan bakea mantentzea eta giza eskubideak errespetatzen laguntzeko erantzukizuna eta betebeharra dute, eta, horretarako, Israelek Palestinako herriaren aurka egiten dituen krimen sistematikoen aurrean duen zigorgabetasuna amaitu behar da.

Giza eskubideak betetzen direla ziurtatzea Administrazioaren maila guztietara hedatzen den betebeharra da, hala nola Israelgo enpresa konplizeetan inbertsio publikoa kontrolatzea. Egia da estatueta eta lurraldeetako gobernuek zeregin garrantzitsua dutela giza eskubideen sustapenean eta babesean, baina tokiko gobernuek abangoardian egon behar dute eta pertsona guztientzako giza eskubideen errespetua bermatu behar dute.

Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalak,

ERABAKI DU:

- Palestinan berehalako su-etena eskatzea, eta Gobernuari eskatzea Gazako Zerrendan laguntza humanitaria sartu eta emango dela ziurtatzea, betiere langile humanitarioen babesa bermatuz.
- Biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespetua eskatzea, NBEk gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak (genozidioa eta apartheid-a barne) amaitzeko eta zigortzeko behar dituen mekanismoak aktibatuz.
- Onartzea okupazio koloniala eta apartheid-a direla gatazkaren egiturazko arrazoiak, eta nazioarteko komunitateak Nazio Batuen ebazpena eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea bete behar dituela, bake justu eta iraunkorra eraikitzeko berme gisa.
- Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea behin betiko suetena izan arte, Palestinako herriaren giza eskubideak bermatu arte eta Israelek Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Udal honetatik egiten dugun bezala, Espainiako Gobernuari exiji diezaiotela Estatuko esparru juridikoan ezarritako betebeharrak bete ditzala eta Israeli norabide biko bahitura militarra ezardiezaiola, bai eta Israelek lankidetzatza militarreko eta segurtasuneko programa



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

guztiak bertan behera utz ditzala ere, Palestinako herriaren eskubideak errespetatu arte.

• *Eusko Jaurlaritzari, eta Espainiako Gobernuari Gazako Zerrendaren aurkako bonbardaketak eta setioa gelditzeko behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela eskatzea, Israelgo gobernuaren eta haren arduradunen aurkako zigor-programa barne, eta Israelgo Estatuarekin harreman diplomatikoak etetea Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.*

• *Aurreko erabakiak jakinaraztea.*

- *Imanol Pradales jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.*
- *Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburua.*
- *Eider Mendoza Larrañaga.*
- *Pedro Sánchez Pérez-Castejón jauna, Espainiako Gobernuko presidentea.*
- *José Manuel Albares Bueno jauna, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Espainiako Lankidetzako ministroa.*
- *Margarita Robles Carrillo, Defentsako ministroa.*
- *Josep Borrell i Fontelles jauna, Europar Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goiordezkaria.*
- *Antonio Guterres jauna, Nazio Batuetako idazkari nagusia.*

Bozkatzera ekin zaio eta **mozioa aho batez onartu** da.

1.- 2024ko ekainaren 11ko akta onartzea.

Manex zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran ez zelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoaren 2023 ekitaldiko likidazioa

Alkateak azaldu du sozietate publikoaren batzar orokorrak, martxoan, onartu zuela 2023ko aurrekontuaren likidazioa eta horren berri eman zitziola osoko bilkurari, baina eragiketa batzuk beste modu batera egin behar zirenez, zuzenketa txiki batzuk egin ondoren batzar orokorrak likidazio zuzendua onartu berri duela. Ondoren, zuzenketa horien nondik norakoak azaldu ditu.

3.- Kontu Orokorra 2023

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2023ko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

4.- 2024ko Zerga Fiskalaren aldaketa.

Alkateak azaldu du kultura eta kirol arloetako 2024-25 ikasturtek prezioak finkatzeko hasierako izaeraz onartun eta jendaudurrean zegoenean, Kontuhartzaileak alegazioa aurkeztu duela JEZ/IEAren epigrafe

batzuk zuzentzeko eskatuz. Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Ordezko kontu-hartzaileak Jarduera Ekonomiko Zergaren inguruan eginiko erreklamazioa onartzea. (2925 sarrera zenbakia).

Bigarrena.- Onartu den erreklamazioarekin, 2024ko Zerga Fiskalei egindako aldaketak behin betirako onartzea.

Hirugarrena.- Aipaturiko aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

5.- Kiroldegia birgaitzeko obra gauzatze-proiektua.

Alkateak azaldu du kiroldegia berritzeko lanketa orain dela 3-4 urte hasi zela, beharren azterlana egin ondoren, 2021ean esleitu zela proiektua idazteko zerbitzu-kontratua. Gaineratu du oinarrizko proiektuak bi fase bereizten dituela: eremu nagusiaren bilmoldaketa eta igerilekuaren estalkia, baina azken hori oraingoz ez dela gauzatuko eta exekuzio-proiektuan ez dela jaso.

Jarraian, eremu nagusia birmoldatzeko proiektuaren ezaugarri nagusiak azaldu ditu, adierazi du 23 hilabeteetako gauzatze-epea duela, 8.204.941,77 euroko aurrekontua, eta, besteak beste, aldaketa hauek dakartzala: sarrera nagusia lekuz aldatzea, irisgarria izateko; isolamenduko gabeziak konpontzea; espazio berriak irabaztea...

Bukatzeko, plangintza ekonomiko eta administratiboa azaldu du. Besteak beste, adierazi du obra urtebete barru hasi nahi dela, eta horretako hainbat lizitazio egin behar direla (obra-kontratuaren esleipena, zuzendaritza-fakultatiboaren esleipena, hiritartze lan osagarrien obra-kontratuaren esleipena, eta maileguarena) eta horien izapidetzea irailetik aurrera egingo dela.

Ondoren, kirolak, jarduera fisikoa eta gazteak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- XLARK ESTUDIO DE ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP enpresak, 2024ko uztailaren 8an, aurkeztutako kiroldegia birgaitzeko gauzatze-proiektua onartzea.

Bigarrena.- Proiektua gauzatzeko administrazio-baldintzen agiria idazten hastea.

Maria zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldea herriaren aldeko proiektu guztiak babestuko dituztela, eta kasu honetan proiektuaren alde daudela, baina ez ordainketa moduaren alde, baina hori hurrengo aztergaia dela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

6.- Mailegua kiroldegiko obra gauzatzeko

Alkateak azaldu du obra-kontratuaren zenbatekoa zortzi milioikoa dela, eta horrek eskatzen duela aurtengo aurrekontuan eta datozen 3 urteetako erabiltzeaz gain, mailegua eskatzea, eta azken horretarako baimena eskatu behar zaiola Aldundiari, baina dirudienez ez dela arazorik egongo hori lortzeko. Argitu du hartuko den akordioa ez dela mailegua eskatzeko, Aldundiari horretarako baimena eskatzeko baizik.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Maria zinegotziak adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, gehiegizkotzat jotzen dutelako horreko mailegu bat eskatzea, 2021az geroztik obraren berri zutenez, aurreikusi eta planifikatu zitekeelako eta ez zaielako gustatu nola antolatu duten.

Alkateak azaldu dio mailegurik gabe egiterik zegoela, baina orduan ezin zirela beste inbertsioarik egin, eta ohikoa dela horrelako obretarako maileguak eskatzea, eta proposatu duten plangintza ekonomikoa egokizat hartzen dutela. Eta Mariak erantzun dio beraiek beste modu batera kudeatuko zutela.

Ondoren, alkateak, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Onartzea lizitazio-prozesuaren bidez finantza entitate batekin mailegu kontratatzea, ondo ezaugarriak izango dituena:*

- Zenbatekoa: 4.500.000,00 euro.
- Amortizazio epea: 10-12 urte (gabealdiko epea 2 urte).
- Amortizazio aurreratua interesik gabe egiteko aukera.
- Maileguaren helburua: kiroldegiko obrak finantzatzea.

Bigarrena.- *Gipuzkoako Foru Aldundiari honen berri ematea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak 48.5. artikuluan jasotakoaren arabera.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena onartu** da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EH Bildu) eta 3 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena)

7.- Udal langileen 2024ko soldata igoera

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- *Udal langileen ordainsariei %2 igoera globala aplikatzea, eta horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izatea ondorio ekonomikoak.*

Bigarrena.- *Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatzea, baldin eta baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPI harmonizatuaren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen bada; eta igoera horren aplikazioa onartzen bada Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **proposamena aho batez onartu** da.

8.- Aitortutako borondatezko eszedentzia ofizioz berrikusteko espedientea

Alkateak alkateak azaldu du udal langile bati borondatezko eszedentzia onartu zitziola, lanpostua gordeta, baina gerora ikusi denez beste administrazio publiko batean lan egiteko eszedentziak ez duela lanpostu erreserbarik, erabakia ofizioz berrikusteko espedientea izapidetu dela. Horren nondik norakoak azaldu ditu, eta adierazi du Jaurilaritzako Aholku Juridiko Batzordeak aldeko irizpena eman duela ofizioz berrikuspen partziala egiteko eta erabateko deuseztasuna deklaratzeko da lanpostua gordetzeari dagokionez.

Ondoren, kudeaketa, berrikuntza eta pertsonala batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

onartua izan dadin:

Lehena.- M. Jose Arbizu Aizpurua entzunaldian aurkeztutako alegazioak ezestea.

Bigarrena.- Ofizios berrikuspen partziala egitea Alkatetzaren uztailaren 23ko 945/2019 Dekretuari, zeinaren bidez borondatezko eszedentzia – lanpostua gordeta – onartzen zitzaion M. Jose Arbizuri Gipuzkoako Foru Aldundian lan egiteko, eta erabateko deuseztasuna deklaratzeko da lanpostua gordetzeari dagokionez.

Hirugarrena.- M. Jose Arbizuri 3 hilabeteko epea ematea – erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera –, hala badagokio, Astigarragako Udaleko diru-bilketako (volun) administrariaren lanpostura jarduneko zerbitzura itzultzea eska dezan. Ohartaraziz, Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionario gisa egindako ukoa onartu ondoren eskatu beharko dela lanera itzultzea, eta emandako 3 hilabeteetan ez bada itzultzeko eskaera egiten, aurrekontuan diruz hornitutako lanpostu huts bat egotearen baldintzapean baino ez dela gertatuko laneratzea.

Laugarrena.- Erabaki hau M. Jose Arbizuri jakinaraztea, maiatzaren 24ko 945/2019 Dekretuaren deuseztasuna deklaratzeko espedienteari aurkeztuko alegazioen txosten juridikoa eta espediente beraren ebazpen-proposamenaren kopiarekin eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 97/2024 irizpenarekin batera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

9.- Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPOren testu bateginaren aldaketa puntuala.

Alkateak azaldu du Osakidetzak ongi ikusia eman diola lurzoru hori lagatzeari anbulatorio berria eraikitzeko, baina horretarako HAPOaren aldaketa izapidetu behar dela. Ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehenengoa.- Hasierako izaeraz onartzea Astigarragako HAPOren 7. aldaketa, AIU 09 "Ergobia Ibilbidea" eta AIU 13 "Bidebitarte" eremuei buruzkoa, partzela bat ekipamendu sanitarioko sistema orokor gisa kalifikatzeko.
Udal arkitektoak zehaztu bezala, lurpeko azalera eraikitzea dagoen eremu osora zabalduko da.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea 45 egunez, eta erabakia GAOn, lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta a Udalaren web orrian argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau eta Plan Orokorra Aldatzeko dokumentua honako administrazio eta erakunde hauei bidaltzea, txostena egin dezaten:

- Añarbeko urak.
- Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako Ministerioaren Telekomunikazio Idazkaritza Nagusia.

Laugarrena.- Ingurumen-organoari (Eusko Jaurlaritza) ingurumen-txosten estrategikoa egiteko eskatzea, eta Plan Orokorra Aldatzeko Dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidaltzea.

Bosgarrena.- *Ebazpen hau eta aldaketa-dokumentua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bidaltzea eta eskatzea abiarazi ditzala osasun zentro berriaren proiektua idazteko izapidea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **proposamena aho batez onartu** da.

10.- Astigarragan Mendiandi Anibar 12 HEAn eskola-ekipamendu berria eraikitzeke Plan Berezia.

Alkateak plan berezia izapidetzearen arazoia dela eraikigarritasuna finkatzea. Adierazi du DBHren oinarrizko proiektua idatzita dagoela, eta orain jaurlaritzak obra-baimena eskatuko duela eta gauzatze-proiektua idazteko lehiaketa egin. Ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- *Astigarragako Plan Orokorreko HIE 12 Mendiandi-Anibar eremuan eskola-ekipamendu berria eraikitzeke Plan Berezia behin betiko onartzea.*

Bigarrena.- *Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gordailutu dezan, argitaratu aurretik.*

Hirugarrena.- *Behin betiko onespeneraren erabakiaren eduki osoa eta hirigintza-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailatu dela adierazita.*

Laugarrena.- *Behin betiko onespeneraren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan eta Udalaren web-orrian argitaratzea.*

Bosgarrena.- *Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari jakinaraztea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

11.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua Astigarragan (etxeetako zerbitzua eta Marisa Garaño adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuen erabiltzaileentzat).

Alkateak azaldu du kontratua bi loteetan banatu dela (etxez etxeko zerbitzua eta etxebizitza tutelatuen zerbitzuak) eta 2 urteko iraupena izango duela, 3 urtez luzatzeko aukerarekin (luzapen bakoitza urtebetekoa). Komentatu du aurrekontua %20a igo dela erabiltzaile kopurua eta ordu kopurua igo direlako, baita langileen lan-baldintzak hobetu direlako era, eta azken horretan lan egin dela langileekin eta enpresarekin. Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Zerbitzu-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak onartzea.*

Bigarrena.- *Kontratazio-espeditentza onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

12.- Produkzio iturri berriztagarri eta pertsona zein bitanleriarentzako seguruen bidez, Astigarragako Udala titularra den kontsumo puntu desberdinetarako energia elektrikoa hornitzea.

Alkateak azaldu du kontratu hau hiru loteetan banatu dela (kaleko argiteria, udal eraikinak, udal etxebizitzak) eta 2 urteko iraupena izango duela, 3 urtez luzatzeko aukerarekin (luzapen bakoitza urtebetekoa). Ondoren, alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Hornidura-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak onartzea.*

Bigarrena.- *Kontratazio-espeditentea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **irizpena aho batez onartu** da.

14.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Arrobitxuloko hiritartze lanak eta Apeztegiko igogailua

Alkateak azaldu du Arrobitxuloko hiritartze-lanak amaitzear daudela, eta Apeztegiko igogailuaren obrak martxa onean doazela.

b.- Santio jaiak

Alkateak ai batzordearen lana goraiatu ondoren j, egitaraua banatu dela adierazi du.

Bestetik, adierazi du genero indarkeriari aurre egiteko protokoloa prestatu dela, eta mahaia eratu dela.

Bukateko aipatu du ohiko antolaketa (errepide mozketak, bus geltokiak, garbiketa...) ixten daudela.

c.- Udal osoko bilkurak grabatzea edo zuzenean ematea.

Maria zinegotziak adierazi du maiatzeko udal osoko bilkuran eskatu zuela plenoak grabatzea edota zuzenean ematea, eta gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak azaldu dio gaia lantzen daudela, horretarako aretoko ikus-entzunezko instalazioak aldatu behar direla, eta aurrekontuak eskatzen dabilatzatela, baina egitekotan 2025ko aurrekontuan egingo dela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko uztailaren 16an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria